

AZPEITIA

GUKA



MANTANGORRIREN ESPEROAN

ONDO PASATU FESTAK!

Azpeitia
Denontzat



Bazen behin... Sanjuandegi

Bazen behin...» esa-
moldearekin hasten
dira hainbat eta
hainbat ipuin. Isto-
rioak kontatzen hasteko for-
mularik ezagunena da ziurre-
nik. Baina asmatutako ipuin
horietatik haratago, badira
herrietako historia osatzen du-
ten egiak.

Horrela, Sanjuandegik badu
bere historia eta istorioa. Izan
ere, Sanjuandegi auzoa izan
aurretik, baserri bat zen: gaur
egungo igerilekuen eta Loio-
laren artean zegoen kokatuta.
Poliki-poliki, ordea, etxebi-
zitza berriak egiten hasi ziren
haren inguruan, eta gaur egun,
Azpeitiko auzo handienetakoa
bilakatu da.

Tamainaz eta biztanleriaz
Azpeitiko handienetakoa iza-
teaz gain, zerbitzuz betetako
auzoa da Sanjuandegi; igerile-
kuak, epaitegia, saltokiak eta
hamaika taberna nahiz jatetxe
daude bertan.



Margotu ezazu zuk orain zure Sanjuandegi



Iritzia

Felipe Murillo

Mantangorriren orbanei begira



Maiatzaren amaiera da, eta sare sozialek oroitzapenez betetzen dizkirate sakelako telefonoaren jakinarazpenak. «Duela X urte...» dioten argazkietan ikusten naiz, eta aste hauetan kolore beltza eta gorria dira nagusi. Urteak dira festa batzordean egon nintzela, eta nostalgia ez baduzu atsegin, utziozu lerrook irakurtzeari. Izan ere, garai ederrak izan zirela sentitu izan dut beti.

Helburu komun bat genuen gazte talde bat besterik ez ginen, eta kanpotik, soilik festaren aldarria egitea ere uler zitekeen orduan, baina hori baino gehiago izan zela sinetsita iritsi naiz 2025era ere. Umeen Egunak zorakeria

bat zirudien, eta horretarako Pirritx, Porrotx eta Marimototsez janzteak kultur aprobazioa. Karpa bat muntatzea bideak ixtea bezala irakur zitekeen, eta txosna bat jartzea tabernekiko lehiakortasun desgokitzat hartu. Hala ere, ez zen erraza erabaki haietako bakoitza hartzea.

Gogoratzen dut kontu horiek guztiak hilabeteak lehenago egoten zirela mahai gainean eta meloi asko ireki izan zirela urtetik urtera, baita beste batzuk dastatu eta ireki gabe utzi ere. Eztabaida haiei esker uztartu ziren sevillanak eta trikitia kartel berean, DJek girotu zituzten hego haize gauak, haurrak bihurtu ziren protagonista egun batez, mantendu zen

eta zuen balioa ematen jarraitu zitzaion areto dantzen emanaldiari, euskara hutsean egin ziren banketxe batek eskaintzen zituen eskuorriak edo Gozategi ekarri zen Gosereren orde modernoeziak izango ginelakoan (nire baitaila galdua eta oraindik gordetzen dudana arantzatzkoa, esaterako). Erabakien zerrenda amaigabea eta askotarikoa izan daiteke, izan ere, halaxe zen taldea eta halaxe uste dut dela auzoa. Lagunkoia eta anitza, mantangorrien orbanen itxuraren moduan.

Gogoan dut behin irakurri nuela mantangorria izaki harrapakaria zela, baina biolibertsitatea zaintzeko baliagarria, horri esker oreka mantentzen laguntzen duelako.

Irribarretxo bat atera zitzaidan hori irakurtzean, urtero, garaiotan, horietako animaliatxo bat esku ahurrera gerturatzeko zaidan aldiro pizten zaidan moduan. Askok esan izan didatenaren kontrara, ez dut uste dibertsitate hori guk asmatu genuenik. Urte osoko dinamika bat asteburu bateko postal bihurtzearen aukerarekin amestu genuen, agian. Hori da eta *el barrio*: sinergia desberdinak elkartzeko gaiten espazioa eta, osotasun bat sortzeko, bakoitzak beretik ipintzeko beharra sentitzen duen lekua. Mantangorriren orbanen antzera.

Aitortuko dizuet aspaldian galdu samar daukadala auzoarekin harreman zuzena. Eguneke zentzura joan ohi

naiz, ordea, musika saioak egitera, eta bertako egoiliar batek ematen dit hango berri: Baigera II irekitzekotan direla, tabernaren bat eskualdatu dela, obrak egiten ari direla espaloi batzuetan, autotxoak iritsi direla... Auzoko kontuak ditu eguneroko kontu, eta horiek zehazten dute bere egunerokotasuna. Sanjuandegi beti izan den moduan. Ekaineko lehen asteburuan islatzen direnek jarrai dezatela izaten egunerokoaren elikagai.

Ongi etorri Mantangorri beste urte batez, eta ondo pasatu Sanjuandegiko festak!

Eskerrik asko ilusioari eus-ten diozuen auzotarrei eta XJ Auzolanean taldeari!

ONDO PASATU FESTAK!

ALABIER
ITURGINTZA



Urbitate 1 behea **943-81 11 79** • linterneria@alabier.com

adats
Ileapaindegia
estetika

ONDO PASATU JAIK!

Salbe auzunea 32 behea
20730 AZPEITIA
adats.azpeitia  

 Telf. 943 81 39 90

a
anare
ile-apaindegia

ondo pasatu auzoko festak!

Barrenetxe 7
943-1515 53
AZPEITIA

AITZAKI
KIROLAK

ONDO PASATU JAIK!

Jose Antonio Agirre Plaza 4
943-15 07 38 - AZPEITIA

Julio Urkijo Hiribidea 36
943-53 27 70 - AZKOITIA

INTXAUSTI

Salbe 33 • AZPEITIA • 943-81 04 89

Ondo pasatu jaiak!




Nora Aizpuru eta Onintza Kerejeta.

«Urtero izaten da zerbait berria egitarauan»

Nora Aizpuru eta Onintza Kerejeta
XJ Auzolaneaneko kideak

Sanjuandegiko festak hasi baino egun batzuk lehenago, XJ Auzolaneaneko kideek aurtengo jaien berrikuntzen eta xehetasunen inguruan hitz egin dute.

Heldu dira Sanjuandegiko festak. Dena prest al duzue?

ONINTZA KEREJETA: Hala da, bai. Ia gauza guztiak lotuta ditugu dagoeneko, eta atzera kontakteta egiten hasiak gara; urduritasun pixka bat ere antzematen dugu.

Egitarau oparoa prestatzen duzue urtero, baina zer berrikuntza izango dira aurren?

O.K.: Egitaraua urterokoaren antzekoa da, baina badira zenbait berrikuntza. Lehen festak hasi aurretik izango dugu: igandean, YK Riders taldearen eskutik umeen bizikleta lasterketak izango ditugu, eta, beraz, umeen asteburua izango dugula esan dezakegu aurren. Taldearen ideia izan zen lasterketak antolatzearena, eta eskertzen ditugu horrelako ekarpenak. Herri kirolen saioak ere aldaketa bat izango du: auzoan jaiotakoen eta auzotik kanpo jaiotakoen aurkako erronka planteatu dugu aurren, eta eguerdian izango da. Arratsaldean, berriz, herriko artisauen azoka izango dugu plazan; hori ere lehen aldiz egingo dugu. Horrez gain, aurreko urtean bezala, aurren ere Palestinari elkartasuna adierazteko keinu bat egingo dugu festak hasi aurretik; izan ere, palestinarren aurkako sarraskiak jarraitu egiten du, eta horren aurrean beharrezkoa iruditzen zaigu palestinar herriari elkartasuna adieraztea eta sarraski horren konplizeak seinalatzea, urrutira joan gabe, baditugulako eskualdean bertan Israelekin harreman zuzena duten enpresak. Zentzu horretan, dei egiten diegu herritarrei Mantangorri jaitsi aurretik egingo dugun elkarretaratzean parte hartzera.

Arrakasta handiko ekintzak antolatu ohi dituzue: Umeen Eguna, bertso afaria... Aurren ere egitarauaren barruan izango al dira horiek?

NORA AIZPURU: Bai, egia esan, badira indar handia hartu duten ekintza batzuk urteroko egitarauaren barruan; bertso afariak, batez ere, azken urteetan harrera ona izan du, eta urtero agortzen dira txartelak. Urtero bezala, Umeen Egunean ere haur mordo bat izango da. Horrez gain, osteguneko kontzertuak eta mus txapelketa ere oso jendetsuak izan dira azken urteetan; jendeak badirudi festak hasi aurretik ere izaten duela gogoia...

Horrelako ekintza jendetsuak izateak beldurra eragiten al du berriak antolatzeke orduan?

N.A.: Egia esan, normalean jakiten dugu betiko ekintzak ondo irtengo direla, eta



«Jendeak badirudi festak hasi aurretik ere izaten duela gogoia...»

«Sanjuandegiko festak bereziak dira beti, udako denboraldiari hasiera ematen diotelako»

«Mundu guztia animatu nahi dugu auzora, ederra izango da eta!»

horiek ezin ditugu ukitu, beraz, gustatzen zaigu gauza berriak probatzea ere, eta urtero izaten da zerbait berria egitarauan; saiatzeko gara horretan, behintzat. Adin eta gustu guztietako herritarrei begirako ekintzak prestatzen ahalegintzen gara.

O.K.: Nahita edo nahi gabe, baina urtero antolatzen dugu zerbait berria. Orain arte beti ondo funtzionatu izan dute ekintza berriek, gainera. Festentzako aberasgarria dela iruditzen zaigu berrikuntzak txertatzea, eta bestelako norbanako eta eragileen parte hartzea sustatzen dugu horrelakoetan.

Dena prest izanik, ba al da kezkatzen zaituzten zerbait?

O.K.: Beti esaten dugu dena lotuta dugula, baina gauza mordo dugunez egitarauan, beti dugu sentsazioa zerbait falta zaigula edo ez dagoela dena behar den bezala. Hala ere, normalean gero gauzak ondo irteten zaizkigu; horretan asmatzen dugu nola edo hala. Horrez gain, gure betiko kezka nagusia eguraldiari lotutakoa izaten da; izan ere, euria eginez gero, asko eragiten du.

Gozatzea bakarrik gelditzen da. Horretarako gogoz dira herritarrek. Zuek ere bai?

N.A.: Sanjuandegiko festak bereziak dira beti, udako denboraldiari hasiera ematen diotelako eta jendea gogoz izaten delako. Guretzat ere, horrenbeste lan eta gero, ederra izaten da ekintzez gozatzea; parrandan beti adi ibili behar izaten dugu baina, tira, moldatzen gara...

Azpeitiko festarik gustukoenetakoak dira Sanjuandegikoak herritarrentzat, baina zer-nolako lana dute atzetik? Lan handia al da dena antolatzea?

O.K.: Egia esan, gustura egiten dugun zerbait da; hilabete batzuk lehenago hasten gara lehen bilerak egiten, normalean azaroan, eta ahal dugun guztia lotuta uzten dugu. Bakoitzak bere ardura izaten du, eta horrekin hasten gara lanean. Gero, festen aurreko bi asteak izaten dira okerrenak; orduan hasten da benetako lana, gauzak egiteko garaia iristen da, eta ez dira gutxi izaten... Festetako egun guztietan eta ia ordu guztietan zehar dago ekitaldiren bat, eta horietarako guztietarako egin beharrekoak kontrolatzea izaten da, agian, lanik zailena, detaile asko hartu behar baitira kontuan.

Festak amaitutakoan, ospatzen al duzue ondo joan izana? Edo festarako gogoak aseta izaten dituzue ordurako?

O.K.: Iristen direnek igande goizean ospatzen dute, baina hurrengo asteetan ere beti egiten dugu zerbait: balorazioa egiteko izaten dugun bilera aprobetxatzen dugu festak ondo joan direla ospatzeko.

Herritarrentzat eskaera edo dei berezirik?

N.A.: Beti esaten dugun moduan, herritarrei eskatzen diegun bakarra da festetan euren aletxoak jartzea, edozein modutan. Egin dezaketen ekarpenik txikienak ere lagundu egiten digu, eta hori asko eskertzen dugu; esate baterako, txosnan txanda egiten dutenak eskertu behar ditugu, baina baita gazte afaria jarri eta jasotzen laguntzen digutenak ere, edo txokolatea eta paella egiten dituztenak... Jaiak guk antolatzen baditugu ere, denen artean egiten ditugu. Hori esanda, mundu guztia animatu nahi dugu auzora, ederra izango da eta!

COVIRAN
ONDO PASATU
JAIK!

Salbe auzoa 22 - Azpeitia

GOI
ATZ
ILEAPAINDEGIA

salbe auzueña 36
20730 azpeitia
943-810408

ONDO
PASATU
FESTAK!

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea 34 • Tel.: 943 15 16 40
Larrialdia: 688 69 29 51

ondo pasatu festak!
GU

Urbite 4
AZPEITIA
943-81 03 08

ERROTAUNDI
Okindegia
gozatu auzoko festez!

Euskal Herria Kalea 34 • 943-81 61 79



ERREKA

ONDO PASATU FESTAK!

URBITARTE 5
SANJUANDEGI AUZOA, AZPEITIA
943-81 23 82

KAFETEGIA



inka
gozotegia

Ondo pasatu festak!

Euskalerria 31 · Azpeitia · 943-81 39 47

JOSTALDI
KIROLAK

ONDO PASATU
JAIK!

Euskalerria, 33 • 943-15 16 39 
www.jostaldikirolak.com 



50urte
zurekin

La salve Nº 11 Bajo
20730 Azpeitia
943813298
eizaguirrebeatriz@gmail.com

Jim Clark
TABERNA

ONDO PASATU FESTAK!

Euskal Herria Kalea 33
943-08 00 89



Urriko III. YK Riders Fest jaialdian egin zuten bizikleta martxa.

Gurpil gaineko lehen esperientziak izateko aukera, Sanjuandegin

Mantangorriren festaren barruan lehenbizikoz egingo dituzte bizikleta lasterketak, maiatzaren 25ean. YK Riders taldeak auzoko festa batzordearekin batera antolatutako ekintza 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Aspaldiko ohi-tura berreskuratu k o dute aurtengo Sanjuandegiko festetan. Izan ere, bizikleta lasterketak

egingo dituzte auzoko errepi-deetan maiatzaren 25eko arratsaldean. «Garai batean, bizikleta lasterketak egiten ziren Sanjuandegiko festen barruan. Urte asko dira, ordea, ez dela horrelako ezer antolatu, eta

festa batzordeari aukera hori planteatu genionean, erantzun positiboa jaso genuen. Eta gu, oso gustura!», azaldu du YK Riders taldeko Xiker Aizpuruk. Igandeko 16:30etik aurrera, bizikleta lasterketak izango



dira, beraz. Umeei zuzendu-tako ekintza izango da; hain zuzen, 12 urte bitarteko haurrei bideratutako lasterketak prestatu dituzte. «Oraindik zehaztu gabe ditugun arren, esan dezakegu Sanjuandegin bertan izango direla ibilbideak, Jose Antonio Agirre plaza ingurutik abiatuta. Errepidean zehar izango dira; hau da, ez da koskarik edo eskailera mailarik izango bidean zehar. Erraz egiteko moduko ibilbideak izango dira. Gainera, parte hartzaileen arabera, maila desberdinak sortzea erabakiko dugu; izan ere, haur guztiek ez dute maila bera, eta, beraz, ziurrenik bi taldetan banatuko ditugu», zehaztu du taldeko kide den Asier Leonek. Ahalik eta parte hartzaile gehien izatea nahi dute, eta, horregatik, izen ematea egunean bertan egin ahalko dute interesatuek. Ekitaldia hasi aurretik mahai bat jarriko dute horretarako, eta bizikl-

taren festan parte hartu nahi dutenek bertara joan beharko dute, izena eman eta lasterketan irten ahal izateko. Ordu erdi lehenago azaltzea nahikoa izango da, baina, hori bai, kaskoa eramatea derrigorrezkoa izango dela aurreratu dute. «Interes pixka bat dutenak, animatu eta etor daitezela. Futbolaz, saskibaloiaz eta betiko kirolez gain, badira bestelako kirolak; bizikleta, adibidez. Proba dezatela, ondo pasatzeko antolatu dugu ekintza, inolako lehiakortasunik bultzatzeko asmorik gabe. Partaideek bizikleta zer den eta mundu hau zertan datzan ezagutzeko aukera izango dute», gaineratu du Leonek.

Modalitate ugari

Arauntza Riders kirol kluba 2023an sortu zuten, mendiko bizikletan nahiz patinajeko edozein modalitatetan aritu nahi duten herritarrei erraztasunak emateko asmoz, eta

Izen ematea egunean bertan egin ahalko dute interesatuek

YK Riders Arauntza Ridersen parte da. «Beti izan gara Yonki Riders, baina kluba sortzea erabaki genuen unea iritsi zen, lasterketa ofizialetan parte hartzeko eta aseguruak izateko, adibidez. Izen formalagoa behar genuen, eta ia beti Arauntza inguruan ibili izan garenez bizikletekin, izen hori hautatzea erabaki genuen», agertu du Leonek. Arauntza Riders klubak modalitate ugari barnebiltzen ditu: skate parkean bizikletan ibiltzen direnak, scooter-ak, skateak, patineteak, roler-ak, mendiko bizikletak... «Azkenean, gorpil gaineko kirol guztiak. Eta horiek guztiak ikusteko aukera dute herritarrek gure urteurreneko festetan», amaitu du Aizpuruk.



Ondo pasatu festak!
Euskal Herria Kalea 33
943-81 23 88

Kantoi
TABERNA
Ondo pasatu festak!
Salbe Auzoa, 15
943-04 75 46

Loiola
Ile-apaindegia
Ondo pasatu festak!
943-90 24 58

LASA
GOZOTEGIA
Ondo pasatu festak!
Salbe Auzoa 14 • AZPEITIA • 943-81 25 39

ZU+OIN
PODOLOGOA AZPEITIA
ONDO PASATU JIAK!
Podologia 313 Kol. Zkia.
943-81 00 72 • 608 83 86 37

Ongi Etorri
J A T E T X E A

Ondo pasatu festak!

Salbe auzunea 21 · 943-15 08 69


Osinazpi
Ondo pasatu festak!

Jose Antonio Agirre plaza 6-7 · AZPEITIA
943-02 68 60
www.osinazpi.eus · info@osinazpi.eus



NEREA ARANBARRI
OSTEOPATIA ZENTROA

ONDO PASAU FESTAK!

Euskal herria, 34 - behea · AZPEITIA
644 45 75 36 · nerearanbarri@gmail.com



Rocha's Chopper

Ondo pasatu jaiak!

Urbitate auzoa 8 behea · AZPEITIA



SOMOZA ARRANDEGIA

Ondo pasatu jaiak!

Sanjuandegi auzunea, Salbe 21
943-81 39 91 · AZPEITIA



Nortzuk hobeak, Sanjuandegikoak ala kanpokoak?


Erronka jokatu dute igande eguerdian, Sanjuandegi auzoan jaiotako Mikel Larrañagak, Olaia Esnaolak eta Jon Unanue 'Goenatxo III.a'-k, eta kanpoan jaiotako Julen Alberdi 'Txikia IV.a'-k, Udane Ostolazak eta Xabier Aranburu 'Guzta'-k, elkarren kontra.

Berrikuntzak eskaini nahian, XJ Auzolanean festa batzordeak herri kirol erronka prestatu du ekainaren 1eko eguerdirako. Saltsa ere sortuko du ekitaldiak; izan ere, Sanjuandegin bertan jaiotakoen eta auzotik kanpo jaiotakoen arteko lehia izango da.

Hurrengo igandeko 13:00etan hasiko den ekitaldiko protagonistak bi taldetan banatuko dira: alde batetik, Mikel Larrañaga, Olaia Esnaola eta Jon Unanue *Goenatxo III.a* auzotarrak; eta beste aldetik, Julen Alberdi *Txikia IV.a*, Udane Ostolaza eta Xabier Aranburu *Guzta* kanpotarrak.

Goenatxo III.a harri jasotzaileari komentatu zioten lehen-

bizikoz erronkaren ideia, bera delako, batik bat, herri kirol emanaldiaren antolatzaileetako: «Aitak antolatzen zituen lehen Sanjuandegiko festen baitako herri kirol emanaldiak, eta haren erretiroaren ondoren, nik hartu nuen lekukoa. Horrela, aurtengo jaietara begira, ea erronka estiloko zerbait egiterik egongo zitekeen galdetu zidaten festa batzorde-



ko kideek, eta buruari buelta batzuk eman ondoren, auzoan jaiotakoak kanpoan jaiotakoen aurka jartzea okurritu zitzaidan. Izan ere, bagara hiru auzoan jaiotakoak, eta kanpoko beste hiru aurkitzea zen ondorengo lana», agertu du Unanuek.

Taldeak finkatuta, Unanue bera Sanjuandegin jaiotakoen artean sartu da. Izan ere, gutxiak jakingo dute, baina Unanue Azpeitian jaiotakoa eta bizitakoa da, zehazki Sanjuandegi auzoan. «Azkoitiar gisa hartzen banaute ere, 16 urtera arte Azpeitian bizi eta ikasi nuen. Bizimodua eta kuadrilla azpeitiarrak izan ditut beti, nahiz eta azken urteetan azkoitiartzen hasi naizen».

Etxean, auzoan, jokatzeari berezia izango da bertako taldea osatzen duten hirurentzat: «Ohiko erakustaldi batekin alderatuta desberdina izanfo den zerbait egin behar dugu, eta gainera, etxean; ukitu berezia ematen dio horrek», agertu du Mikel Larrañaga aizkolariak. Olaia Esnaola harri jasotzailea ere auzotarra da, eta gustura hartu du proposamena: «Erronka desberdina da eta

gogotsu nago; ea zer ateratzen den eta irabaztea lortzen dugun».

Lana eta babesa

Sei kirolarien baiezkoak lortuta, erronka bera zehaztea gelditzen zen, hau da, egin beharreko lanak adostea, eta hori duela aste batzuk egin zuten. Aizkoran zortzi egur izango dituzte, eta harri jasotzen, berriz, neskek 50 kiloko kubikoa, eta mutilek 113 kilokoa. Hala, seinajasoaldi egin beharko dituzte harri jasotzaileek, sei neskek eta sei mutilek, eta ondoren, bi enbor moztu beharko dituzte aizkolariak. Horrela lau itzuli egin beharko dituzte, harri jasotzaile bakoitzak 24na jasoaldi egin eta aizkolari bakoitzak zortzina enbor moztu arte. Lanak azkarren egiten dituen taldeak irabaziko du erronka.

Horrez gain, erronka hasi aurretik ere beste lan batzuk egin beharko dituzte: «Erakustaldi desberdinak egingo ditugu giroa berotzen joateko. Saltsa egongo dela baieztatu dezakegu», azaldu du Unanuek. Esnaolak, berriz, «gogoz» da goela dio: «Auzoan izateak edo babes handiagoa izateak

ez dakit abantailarik ematen digun, baina, niri behintzat, animo edo gogo handiagoa emango dizkit irabazteko. Berezia izango da bertakoa izanda irabaztea, baina denok ere oso indartsu gaude, eta ikusi egin beharko da».

«Erronka handia da niretzat, izan ere, harri kubikoa erabili

Aurten ordutegia aldatzea erabaki dute, eta eguerdian izango da, 13:00etan

Lanak azkarren egiten dituen taldeak irabaziko du prestatutako erronka

li beharko dugu, eta niretzat gogorra izaten da harri hori. Presio gehiagarri bat izango da, baina gustura eta gogoz nago ohikoa ez den erakustaldi bat egiteko. Babesa denok jasoko dugula uste dut, eta batzuetan, gainera, ondo etor daiteke espero ez den lekuan egotea, lasaia hartzen baituzu», onar-



ondo pasatu auzoko festak!

makibar

Euskal Herria, Kalea, 31
943-08 06 00

LAGUNAK

Urbite, 7 beheak · AZPEITIA
943-81 37 87 · 747 40 34 10
www.lagunaksl.com · elagunak@gmail.com



HIRU ARGENTINARRAK

ERREFORMA INTEGRALAK

ONDO PASATU FESTAK!

Salbe auzunea, 15 · 20730 AZPEITIA
Tel. 943-50 34 20 / 626 82 47 78

K
URKIZU

LANEKO ERROPAK

SALBE 24
20730 AZPEITIA

943 02 58 61
info@urkizu.net

650 75 61 79

Ondo pasa XANJUANDEIKO festak!!

izaro

Kafe Bar

Ondo pasatu jaiak!

Salbe auzoa 34 - Azpeitia



tu du Udane Ostolaza harri jasotzaile oriotarrak.

«Ohorea bakarrik dago joakoan, oraingoz behintzat. Egunean bertan ikusi beharko dugu», esan du Larrañagak. «Bazkariren edo afariren bat jokatu beharko dugu», dio Esnolak, «eta galtzen duen taldeak bazkaria ordaindu beharko du!».

Plaza ona

Orain arte, Sanjuandegiko herri kirol erakustaldia arratsaldean egiten zen, baina azken

urteetan jende gutxiago gerturatzeko ari zela ohartuta, aurtengo ordutegia aldatzea erabaki dute, eta eguerdian izango da, 13:00etan. «Buruz buruko pilotaren txapelketaren finala izaten da egun berdinean, eta bi ekitaldiak ordu berdinean izateak eragina zuela nabaritzen hasita geunden. Horregatik, orduz aldatzea erabaki dugu eta ea lortzen dugun betiko jendetza biltzea», gaineratu du Unanuek.

Izan ere, Sanjuandegikoa beti izan da herri kirolentzat

plaza ona. «Oso plaza ona da, nahiz eta, aurrez esan bezala, azken urteetan pilotako finalarekin batera tokatu, eta hor zertxobait galdu duen. Baina, Sanjuandegi beti gustura joaten zaren plaza da», esan du Unanuek. Iritzi berekoak dira gainontzeko kirolariak ere. Esnaola: «Gustura joaten naizen lekua da, bai erakustaldiak egitera eta baita festara ere. Urola Erdian plaza onak izaten dira orokorrean, giro ederrarekin eta animosoak. Azpeitia, beste leku batzuekin alderatuz, he-

rri kirolak gehiago baloratzen dituen herria da». Txikia IV.a azkoitiarrak ere gustura joaten den auzoa dela dio: «Arierioen lurretan izango gara, baina gure aldekoak ere espero ditugu. Motibazio estra bat ere izango dugu, ordea. Giro ederra sortzen da beti Sanjuandegian, eta aurtengo ere erakustaldi on bat eskaintzea da helburua, giroak berdin jarrai dezan».

Urte asko dira Sanjuandegiko festen baitan antolatzen den herri kirol emanaldian parte hartzen dutela denek, eta guz-

tiak erabat ados dira esatean «plaza bikaina» dela auzokoa, batik bat, jendearen harreragatik. «Sanjuandegiko festek gorakada nabarmena izan dute azken urteotan, jendea erakartzea lortu dute, eta ez dakit zer izango den, edo nola egin duten, baina lortu dutena ikaragarria da», esan du Larrañagak. «Aurtengo erroka bat izateak are pertsona gehiago bilduko dituelakoan nago, berezia izango delako, eta auzoak erantzungo duela uste dut», amaitu du Esnolak.



NIK

hik, hark, denok

GUKA EGITEN DUGU



Xanti Agirrezabala / Aktorea

Azpeitia

**ZUK ERE
EGIN GUKA**
egin bazkide

Guka independentea da eta komunitatean du oinarria. Herritik eta herriarentzat sortua izanik, aurrera egiteko, guztion babesa eta lankidetzaz ezinbestekoak dira.

GUKA

Eskaneatu QR-a, eman zure babesa
maiatzak 31 baino lehen eta

***irabazi bidaia bat
Tenerifera.***



**LAGUNTZAILEAK:**

- Lasa gozotegia
- Iturria ile apaindegia
- Intxausti harategia
- Karmaña arraindegia
- Adats ile apaindegia
- Zutoin podologia
- A&M fisioterapia eta estetika
- Coviran denda
- Makibar fruta eta abar
- Haizea arropa denda
- Iris mertzeria eta drogeria
- Eguzki belardenda
- Goiatz ile apaindegia
- Txintxu gozotegia
- Errotaundi okindegia
- Aitzaki kirolak
- Loiola ile apaindegia
- Alabier iturgintza
- Gu ile apaindegia
- Asun ile apaindegia
- Lagunak elektrizitatea
- Artetxe Bastida farmazia
- Atsedena taberna
- Urkizu laneko arropa
- Urbistondo margoak
- Inka kafetegia
- Osinazpi jatetxea
- Ongi Etorri erretegia
- Niza taberna
- Kantoi taberna
- Rocha's Choper taberna
- Jim Clark taberna
- Garoa taberna
- Erreka taberna
- Baigera II jatetxea
- Izaro taberna
- Mendata estudio grafikoa
- Marijose ile apaindegia
- Anare ile apaindegia
- Irede estetika
- Labe Txiki
- Ekain albaitaritza
- Jostaldi kirolak
- Loteria denda
- Barber
- Petra estankoa
- Sanjuandegiko bizartegia
- Ukabi Group
- Urola Erdiko Kontseilu Sozialista
- Haujijijai Batzordea
- Urrestillako Festa Batzordea
- Vivero elkarte
- Loiolabide Zahar elkarte
- Iturri elkarte
- Azpeitiko Udala

AGENDA

Maiatzak 24, zapatua

Umeen Eguna

12:45. Umeen Egunean izena eman duten haurrak begiraleekin elkartuko dira, eta jarraian, jolasak egingo dituzte.
14:30. Umeen auzo bazkaria.
16:15. Iagomagoren ekitaldia.

Maiatzak 25, igandea

16:30. Umeen bizikleta lasterketak, YK Riders taldearen eskutik.

Maiatzak 28, asteazkena

21:00. Bertso afaria, Sanjuandegiko Baigera tabernan. An-

doni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariak ariko dira kantuan.

Maiatzak 29, osteguna

19:00. Kantujira eta pintxo-potea.
21:00. Mus txapelketako izen ematea.
22:00. Mus txapelketa, Ongi Etorri erretegia.
22:00. Iluntze musikatua: Edu Zardoya eta Sembrando Kaos taldeak Jim Clark eta Garoa tabernen atarian.

Maiatzak 30, ostirala

Gazte Eguna
15:00. Kafea eta auzolana.
18:45. Elkarretaratzea Palestinari elkartasuna adierazteko.
19:00. Auzoko maskota den Mantangorriren ongietorri

ekitaldia, Jose Antonio Agirre plazan.
19:05. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta trikitilarekin.
21:00. Gazte afaria.
23:00. Areto dantzen emanaldia.
23:00. Kontzertuak karpan: Rodeo, Eraldatzen eta Laket.
Gainera, DJak txosnan: Jos_U, P4ul, House One eta Meritron.

Maiatzak 31, zapatua

Auzo Eguna

10:30. Xake txapelketa.
11:00. Judo erakustaldia.
13:00. Udal Musika Bandaren kontzertua.
13:30. Triki-pintxo-poteoa.
15:00. Auzo bazkaria. Ondoren, bingoa.
18:30. Txokolatada.
19:00. Erraldoiak eta buruhandiak.

20:00. Parrillada.
20:00. II. Triki-free trikiti emanaldia.
22:00. Kontzertuak, La Txama eta Tapia eta Leturia taldeen eskutik.
Ondoren, Javi Hidalgo eta Kanpax DJak karpan.

Ekainak 1, igandea

Resaka Eguna

06:00. UK03 txaranga.
07:00. Bigantxak eta jolasak, Barrenetxe auzunean.
11:30. Dantzari txikien emanaldia.
13:00. Herri kirol erronka: auzoan jaiotakoak kanpoan jaiotakoen aurka.
16:00. Artisau azoka, Jose Antonio Agirre plazan.
19:45. Boletoen zozketa.
20:00. Mantangorriren agur ekitaldia.

URBISTONDO MARGOAK

ONDO PASATU JAIK!

Salbe Auzunea 35 behea • 20730 AZPEITIA • 943-81 57 81

info@urbistondomargoak.com

Artetxe-Bastida Farmazia

Azal-analisiak dermo aholkurako
 Arrisku kardiobaskularra neurtzea
 Pastileroa prestatzea
 Elikadura aholkularitza

@artetxebastidafarmazia
 688 69 98 88 - 943-81 19 49
 Urbitarte 3, Azpeitia

2019/2192
 -61/21 erregistro zb